

## EMAKUMEEEN ELKARTEEN DIRULAGUNTZA DEIALDIA 2021 – ZURIKETA FASEA

Dokumentu honen bidez, Emakunderen zuzendariaren 2021eko otsailaren 16ko ebazpenaren **zuriketari dagokion informazioa** jaso nahi da. Ebazpen horren bidez, 2021eko ekitaldian emakumeen elkartegintza eta parte-hartzea sustatzeko diru-laguntzak ematea arautzen da (<https://www.euskadi.eus/2021/elkartek/web01-tramite/eu/>).

Hala ere, dokumentu honek beste deialdi batzuekin alderatuta sartutako hobekuntzak eta bertara aurkezten diren erakundeek kontuan hartu beharreko funtsezko puntuak baino ez ditu jasotzen. **Beraz, ezinbestekoa da ebazpena osorik eta arretaz irakurtzea.**

Horrela, helburu berarekin antolatutako **informazio-saioetan eskainitako edukiak** eta bertan adierazitako elkarte guztientzat **garrantzitsuak diren galderak** jasotzen dira. Ebazpenean agertzen den gai-ordena errespetatu da, orientabide txiki horiekin errazago irakurtzeko eta ulertzeko helburuarekin.

Jarraian, informazio-saioen edukia:

### I. Zuriketarako informazioa non aurkitu

- Deialdiaren informazioa Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko Tramiteen Katalogoan bilatu daiteke: [HEMEN](#)
- Deialdiko informaziora esteka zuzena: <https://www.euskadi.eus/2021/elkartek/web01-tramite/eu/>
- Zuriketa egiteko **II. Eranskina** erabili behar da memoria ekonomikoa eta teknikoa prestatzeko:

< Diru-laguntzak eta bekaak  
(ELKARTEGINTZA ETA PARTE-HARTZEA) Asoziazionismoa sustatzeko eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan parte hartzeko diru-laguntzak (2021 urteko ekitaldia).

[AGM 2021]

Erakundeak: **EMAKUNDE**, Emakumeen Euskal Erakundea  
Egilea: Itzela Itzela, eskerri aurkezteko epela (2021/02/27-2021/03/28)

<b>Oinarriko informazioa</b>	<b>Justifikazioa</b>
Deskribipena Arazua Erakundeak Kontaktua informazioa	Ezerrikiko baldintzak betezen dituzula eta aurreikusitako helburuak lortzen dituzula justifikazioa, beharrezko dokumentazioa aurkeztu behariko duzu adierazitako lekuetan.
<b>Tramitazioa</b>	<b>Tramitazio elektronikoa</b>
Eskaerak eta dokumentazioa aurkezteak Justifikazioa Ebazpena eta errekurtsoak Beste tramite batzuk	1. Bete itzazu eskaerako inprimakia, inprimakiri bidez. 2. Presta ezazu eskaerako dokumentazioa formatu digitalan. 3. Jarri zure tramitazio elektronikora aplikazioa. Identifikazio elektronikorako bitarteko bat zara behar duzu.

[II. Eranskina: Zuriketa](#)

**Nire kargeta**

+ Informazio gehiago



## 2. 5. Artikulua – Laguntzak emateko eta prozedura eta diru zenbatekoa zehaztea

---

### a) Gastu arruntak

- Proiektuaren garapenari zalantzarik gabe lotuta
- Ezin dute emandako diru-laguntza osoaren %15a gainditu
- Aurrekontuan modu xehatu eta banakatuan agertu behar dira
- Ez dira kontuan hartuko entitatearen ohiko funtzionamendutik eratorritako gastuak

### b) Langile gastuak: proiektua garatzeko soilik bideratutakoak

### c) Dietak eta joan etorriak, ebazpenean adierazten den dekretuaren araberakoa

### d) Prestakuntza:

- 90 €/orduko gai orokorrak edo alde zurreratik prestatutakoak
- 150 €/orduko prestatu beharreko eduki espezifikokoak edo teknikoagoak direnean
- BEZa kontuan izateko deklaratzeko salbuespen agiria gehitu beharra (entitatearen kasua bada)

## 3. 10. Artikulua – Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak

---

- **Hasierako proiektuan (eskaeran) zehaztutakoa, eta horregatik puntuazioa jaso bada, egiaztatuko da bete den; baieztapena errazten duen edozein dokumentazio gehitu beharko da.**

## 4. 14. Artikulua – Diru-laguntzak justifikatzeko eta ordaintzea

---

- II. Eranskina erabili beharko da eredu bezala memoria tekniko eta ekonomikoa betetzeko.
- Faktura originalak gehitu
- 100€ baino gehiagoko fakturen ordainagiriak
- PFEZ.a ordaindu izanaren agiriak + T10 edo I90 ereduak
- BEZ.a deklaratzeko salbuespenaren agiria (salbuespena duten entitateek)
- Soldata eta Gizarte Segurantza gastuak justifikatzen duten agiriak (soldatapeko pertsonala bada, proiektuari egokitua)
- Diruz lagundutako jardueretatik sortzen den produktua (fisikoa bada, posta arruntaz bidali)
- Publizitatean Emakunderen lankidetzak agertu den egiaztapenak



## 5. Balantze ekonomikoa

---

- Gastu bakoitza xehatuta agertu behar da
- II. Eranskinaren araberkoa izan behar da

Espero dugu ohar hauek **baliagarriak izango zaizkizuela** emakume-elkarteentzako diru-laguntzen deialdiaren **zuriketa fasean**.

Sortzen zaizuen edozein zalantza argitzeko, jar zaitezte harremanetan Emakunderen Programa eta Prestakuntza Arloko **Haizea Mirandarekin**, gai teknikoetarako, edo **Iratxe Murgarekin**, gai administratiboetarako.

